

## PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

---

Konpetentziak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurara aurkezten direnek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea, Europako Erkidegoko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizilekua izateko baimena edo bizilekua izateko eta lan egiteko baimena indarrean izatea, atzerritartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritako terminoetan.
- b) Izena ematerakoan 18 urte beteta izatea, I. mailako kualifikazioei dagozkien konpetentzia-atalen kasuan, eta 20 urte II. eta III. mailakoen kasuan.
- c) Egiaztatu nahi diren lanbide-konpetentziekin zerikusia duen lan-esperientzia edo prestakuntza izatea:
  - Lan-esperientiaren kasuan. Gutxienez 3 urte justifikatzea, gutxienez 2.000 ordu lan eginda guztira, deialdia egin aurreko azken 10 urteetan. I. mailako konpetentzia-ataletarako 2 urteko lan-esperientzia eskatuko da, gutxienez 1.200 ordu lan eginda guztira.
  - Prestakuntzaren kasuan. Konpetentzia-atal bakoitzeko, deialdia egin aurreko azken 10 urteetan gutxienez 300 ordu justifikatzea. I. mailako konpetentzia-atal bakoitzeko 200 ordu eskatuko dira gutxienez. Egiaztatu nahi den konpetentzia-atalari lotutako lanbide-moduluetan iraupen laburragoa aurreikusiz gero, modulu horietan ezarritako orduak egiaztatu beharko dira.